

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 900.000 euro inguru bideratuko du desgaituen elkarte eta federazioen gastuak finantzatzeko

*Laguntza horiek eskatzeko epea martxoaren 30ean amaituko da*

Viernes, 15 de marzo de 2013

Nafarroako Gobernuak 895.291 euro bideratuko du aurten, Foru Komunitateko pertsona desgaituen elkarte nahiz federazioetako jardueren, langileen eta funtzionamenduaren gastuak finantzatzeko.

[Laguntza-deialdi](#) hori Gizarte Politiken kontseilari Iñigo Alliren foru-agindu batek arautzen du, [Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#) gaur argitaratu dena. Eskatzeko epea martxoaren 30ean amaituko da.

Norgehiagoka-erregimenean izapidetuko diren diru-laguntza horien helburua, desgaitasuna duten pertsonen elkartegintzako oinarritzko jarduketaren garapena sustatzea da. Haietaz balia daitezke, Foru Komunitatearen eremuan sektore horretan bakarrik esku-hartzen duten irabazi-asmorik gabeko erakunde edo federazioak.

Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak ezinbesteko oinarritzko jarduketatzat jotzen ditu harrerari, informazioari eta orientazioari lotutakoak. Halaber, honako hauei lotutakoak osagarri modura jasotzen ditu: dibulgazioa, sentsibilitatea, elkarri laguntzeko talde informalak eta boluntaritzako egituratu gabeko ekintzak.

Aldiz, langileen gastuak diruz lagunduko dira 2012ko abenduaren 31n eskatzaileek izango zituzten desgaituen bazkide-kopuruaren arabera. Gainera, elkartearen egoitza soziala kokatuko den lokalari lotutako funtzionamendu-gastuak diruz lagunduko dira, eta baita kontserbazioko obrak, ekipamendua kontserbatzeko gastuak eta horniduren erosketa ere, besteak beste.

Laguntza horiek jasotzeko, elkarte edo federazioek [dagokien inprimakia](#) beteta aurkeztu beharko dute martxoaren 30a baino lehen; horrekin batera, elkartearen proiektua (izena, helburuak, garatu beharreko ekintzak eta ebaluazioaren aurreikuspena sartuko dira), diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu orokorra, kontratatutako langileen harremana eta desgaitasuna duten beren kideen harreman nominala.

2012an Nafarroako Gobernuak 24 erakunde finantzatu zituen laguntza-deialdi horren bidez, 5.102 bazkide guztira; desgaitasuna duten pertsonen eta haien familiartekoen zuzeneko arreta emateaz gain, menpekotasuna prebenitzeko eta autonomia pertsonalaren sustapeneko programak eskaintzen dituzte.